

Irurtzunen, bi mila eta zortziko ekainaren hiruan, arratsaldeko zazpiak direnean, Ohiko Bilkura egitearren Irurtzungo Udaleko Udalbatza, legeak agintzen duen moduan deituta, Batzar-gelan elkartu da Juan Jose Iriarte Vitoria alkate-lehendakaria buru dela. Bertan izan dira ondoren aipatzen diren zinegotziak:

Arrate Zabalo Ochotorena
Francisco Goicoechea Arbizu
Jose Javier Recalde Maestre
Saray Ongay Garcia
Jose Luis Viñas Estudillo
Miguel Angel Navarrete Cuevas
Luis Enrique de la Calle Moreno
Eduardo Murugarren Frances
Francisca Arruabarrena Quintana

Eta idazkaria naizen hau, Santos Iragui Hualde.

Ez da etorri, eta ez du ezin etorria adierazi Jose Peinado Cuesta.

AURREKO BILKURAREN AKTA ONETSI

Bilkurari hasiera emanda, udalburuak deialdiarekin batera banatu den 2008ko maiatzaren 6an egindako Bilkuren Aktari zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion galdetu du. Oharrik egin ez zaionez, aho batez onartu da.

ALKATETZAK HARTUTAKO ERABAKIEN IRAKURKETA

2008ko maiatzaren 5az geroztik Alkatetzak eman dituen Ebazpenak irakurri dira eta, honenbestez, zinegotziak jakinaren gainean daude.

ZINEGOTZI BATEN DIMISIOA

Miguel Angel Navarrete Cuevasek 2008ko maiatzaren 7ko datarekin aurkeztu duen idazkian arrazoi pertsonalak tarteko zinegotzi-postu uzten duela adierazten du. Aipatu idazkia aztertuta, eta, halaber, Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2008ko ekainaren 2an egindako bilkuran onartutako proposamena aztertuta, honako hau erabaki da aho batez:

1.- Miguel Angel Navarrete Cuevas zinegotziaren dimisioa onartzea.

2.- Hauteskunde Batzorde Zentralari eskatzea kredentzialak egitea Maria Nieves Uterga Juangoren alde, 2007ko maiatzaren 27ko udal-hauteskundeetan *Union del Pueblo Navarro* alderdiaren zerrendan 4. postuan zegoenaren alde.

ESPETXEETAKO ZUZENDARITZA NAGUSIAREN ETA UDAL-LEN ARTEKO HITZARMENERA ATXIKITZEA, GIZARTEARENTZAT LAN EGINEZ ZIGORRAK BETETZEKO

Gizartearentzat lan eginez zigorrak betetze aldera, Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiaren eta Udalen arteko lankidetzahitzarmenari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta, halaber, Gizarte Ongizate Batzordeak eta Emakumearen Atalak 2008ko maiatzaren 26an egindako bilkuran onartutako proposamena aztertuta, ondoren jasotako puntuak onartu dira Iriarte, Goicoechea, Recalde, Viñas eta Murugarren jaunen, eta Zabalo, Ongay eta Arruabarrena andreen aldeko botoarekin. De la Calle jaunak abstentziora jo du.

1.- Gizartearentzat lan eginez zigorrak betetze aldera, Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiaren eta Udalen arteko lankidetzahitzarmenera atxikitzea.

2.- Akordioa, Hitzarmenera atxikitzeko protokoloa, eta eskaintako postuetarako ezaugarri osagarriak Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federaziora igortzea.

Bozketa aitzineko eztabaidan, De la Calle jaunak aipatu du Hitzarmenera atxikitzeak zenbateko karga ekar diezaiokeen Udalari aseguruetan. Halaber, lanaren kontrola nola egien den galdetu du.

Viñas jaunak azaldu du, adierazitako zalantzak hitzarmenaren klausulek argitzen dutela. Seguruei dagokienez, esan du ez direla batere garestiak; eta lanen kontrolari dagokionez, berriz, adierazi du, aurreikusitakoaren arabera, epaitegiak, Nafarroako Espetxeetako Gizarte Zerbitzuak eta alkateak eginen dutela.

Murugarren jaunak galdetu du ea lan horiek eginen dituzten pertsonak gainerako udal-langileekin batera eginen ote dituzten.

Iriarte jaunak esan du, pertsona horiek eginen duten lana ohiko ordutegitik kanpo, edo asteburuetan eginen dutela; garbiketa-lanak, hiri-altzariak margotzen, eta abar.

KIROL ARLOKO DIRU-LAGUNTZAK

Irurtzungo Shotokan karate klubari diru-laguntza bat emateari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta, halaber, Kirol Batzordeak 2008ko maiatzaren 22an egindako bilkuran onartutako aldeko proposamenarekin, Irurtzungo Shotokan karate klubari 1.300 euroko diru-laguntza ematea erabaki da aho batez, Irurtzun-2008 Haurren XXI. Karate Trofeoa antolatzeke, 2008ko Aurrekontuko 4523 2270901 partidaren kargura.

EUSKARA ARLOKO DIRU-LAGUNTZAK

Euskara ikastaroak egiteko diru-laguntzak emateari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta, halaber, Euskara Batzordeak 2007ko abenduaren 13an egindako bilkuran onartutako aldeko proposamenarekin, Xabier Goñi Lazkanori 773,75 euroko diru-laguntza ematea onartu da, 2008ko Aurrekontuko 4510 48201 partidaren kargura.

SAKANDARREN EGUNERAKO DIRU-LAGUNTZA

Sakandarren Egunerako diru-laguntza emateari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta, halaber, Ogasun, Industria, Langilek eta Barne Eraentza Batzordeak 2008ko ekainaren 2an egindako bilkuran onartutako aldeko proposamenarekin ondoren jasotakoak onartu dira Iriarte, Goicoechea, Recalde, Viñas eta Murugarren jaunen, eta Zabalo, Ongay eta Arruabarrrena andreen aldeko botoarekin. De la Calle jaunak abstentziora jo du:

1.- Orritz Dantza Taldeari 600 euroko diru-laguntza ematea musika-taldeen kontzerturako, 2008ko aurrekontuko 4523 2270901 partidaren kargura 2008.

2.- Aizpea Euskara Taldeari 500 euroko diru-laguntza ematea antzerki-saio baterako, 2008ko Aurrekontuko 4510 48201 partidaren kargura.

Bozkatu aitzin, Iriarte jaunak esan du festaren antolatzaileekin bilera bat egin zuela festak eragindako gastuak eta diru-sarrerak aztertze aldera. Bileran udalaren ordezkariak esan zuen musika- eta antzerki-emanaldien

megafonia-gastuak udalak hartuko zituela bere gain -1.250 euro inguru-, baita ondorengo garbiketa ere.

Murugarren jaunak adierazi du beren eskuzabaltasunez festa antolatu dutenek eskatutako diru-kopurua -3.000 euro- ematearen aldekoa bazen ere, proposamena onartu duela.

DIRU-LAGUNTZA ATAKONDOA IKASTETXEKO GURASO ELKARTEARI

Atakondoa ikastetxe Guraso Elkarteari diru-laguntza emateari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta Hezkuntza eta Kultura Batzordeak 2008ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran onartutako proposamenarekin, 1.100 euroko laguntza ematea erabaki da, 2008ko Aurrekontuko 4515 48202 partidaren kargura.

BARDEETAKO TIRO-POLIGONOA ERAISTEKO MOZIOA

Iriarte jaunak mozioa sartu izana justifikatu du Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2008ko ekainaren 2an egindako bilkuran aztertu zuelako; hau da, Osoko Bilkurarako deia egin eta ondotik. Bistan da, beraz, puntu hau ezin sar zitekeela eguneko aztergaietan.

Mozioaren premiazkotasuna bozkatuta onartu egin da Iriarte, Goicoechea, Recalde, Viñas eta Murugarren jaunen, eta Zabalo, Ongay eta Arruabarrrena andreen aldeko botoarekin. De la Calle jaunak abstentziora jo du.

Jarraian, aurkeztutako testua irakurrita, onartu egin da Iriarte, Goicoechea, Recalde, Viñas eta Murugarren jaunen, eta Zabalo, Ongay eta Arruabarrrena andreen aldeko botoarekin. De la Calle jaunak abstentziora jo du. Hauxe da mozioaren edukia:

“Bardeetako Tiro Poligonoaren kontratuaren iraungitzea dela-eta (ekainaren 9an gertatuko dena), Udal honi ondoko puntuen aldeko jarrera har dezan, eta hori publikoki azal dezan eskatzen diogu:

1.- Udal hau Bardeetako Poligonoaren erabilpen militarren aurka, eta soilik kokatzen den Parke Naturalaren ezaugarri naturista eta ekologistekin bat etorriko den erabilpenaren alde agertzen da.

2.- Bardeetako Batzarrari honako hau eskatzea: batzarrean eta modu publikoan azal dadila gaur egun Tiro Poligono gisa erabiltzen den Bardeetako lurraren zatiaren Errentamendu Kontratu berria Defentsa Ministerioarekin sinatzearen aurka.

3.- Nafarroako Gobernuari eta Foru Parlamentuari dagokienez, honako hau eskatzen diegu: Madrilgo Gobernuak eta Defentsa Ministerioak nafar erakundeen akordioak, Udaletatik hasi eta Foru Parlamenturaino, errespetatuz beharrezkoak diren premiazko kudeaketa-lan guztiak egin ditzaten, honako hauek lortze aldera:

- Bardeetako Tiro Poligonoaren errentamendu-kontratua kita dadin.
- Defentsarako interes orokortzat jotzen diren lursailak desjabe ez daitezzen, 1959. urtetik gaur egunera arte Poligonoko auzokide eta herri partzuer zein mugakideek defentsa horretarako egindako ekarpena aintzat hartuta.
- Nafar herritarren gehiengoaren borondatea errespetatua izan dadin.”

Bozketa aitzin, Murugarren jaunak duela gutxi kaleratu diren berriak izan ditu hizpide. Horien arabera, Tiro Poligonoa erabilpen militarerako ez ezik, litekeena da erabili izana uranio pobretuarekin praktikak egiteko. Horrek, jakina, osasunean arazoak sor litzake.

AMNISTIAREN ALDEKO MUGIMENDUAREN AURKAKO EPAIKETARI BURUZKO MOZIOA

Iriarte jaunak mozio hau sartu izana justifikatu du, oraingoan ere, Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2008ko ekainaren 2an egindako bilkuran aztertu zuelako.

Mozioaren premiazkotasuna bozkatuta onartu egin da Iriarte, Goicoechea, Recalde, Viñas eta Murugarren jaunen, eta Zabalo, Ongay eta Arruabarrrena andreen aldeko botoarekin. De la Calle jaunak abstentziora jo du.

Jarraian, Irurtzango EAE-ANV alderdiak aurkeztutako mozioa irakurrita, onartu egin da Iriarte, Goicoechea, Recalde, Viñas eta Murugarren jaunen, eta Zabalo, Ongay eta Arruabarrrena andreen aldeko botoarekin. De la Calle jaunak abstentziora jo du. Hauxe da mozioaren edukia:

“Amnistiaren aldeko mugimenduetako militanteen aurka egiten ari diren 33/01 prozesua dela-eta, honako hau adierazi nahi dugu:

- Sakabanaketa salatzea ez da delitua; sakabanaketa bera, eta euskal preso politikoaren kolektiboaren aurka hartzen diren salbuespenezko neurri guztiak bai dira delituak.
- Tortura salatzea ez da delitua; tortura bera, eta hori ahalbidetzen duen guztia (salbuespenezko neurriak, inkomunikazioa eta salbuespenezko legeak) bai dira delituak.
- Errepresioa salatzea eta giza eskubideen defentsa egitea ez dira delituak; Estatuaren biolentzia, eskubideak urratzea, horiek bai dira delituak.
- Elkartasuna ez da delitua; errepresioa pairatzen dutenekiko elkartasuna galaraztea eta kriminalizatzea, horiek bai dira delituak.
- Errepresaliatuen familiarrei babesa ematea eta laguntzea ez dira delituak; horiei laguntza ematen dieten kolektiboak kriminalizatzea eta zigortzea, horiek bai dira delituak.

Egiazki epaitu eta zigortu nahi dena da instituzioek darabilten indarkeria eta errepresioa salatzea, errepresaliatuekiko elkartasuna; Espainiako eta Frantziako Estaturen jardueren irregulartasunak inork argitara ateratzea saihestu nahi dute.

Horregatik guztiarengatik Udal honek honako hau erabaki du:

- 1.- Gure elkartasuna eta sostengua helaraztea epaituak diren amnistiaren aldeko 27 kideri.
- 2.- Amnistiaren aldeko mugimenduek egiten duten gizarte-lanari eta lan politikoari trabarik ez jartzea exijitzea, eta epaiketa hau bukatuta, buka daitezela aipatu mugimenduak kriminalizatzen dituzten jarduerak ere.
- 3.- Auzitegi Nagusia desegitea eskatzea; izan ere, areto horrek behin eta berriro ukatzen ditu eskubide zibil eta politikoak, eta ahalbidetzen ditu tortura eta gure herriaren aurkako errepresioa.”

Bozkatu aitzin, Iriarte jaunak, epaiketa justizia erabiltzen den beste jarduera politiko bat dela iritzita, epaiketak duen kostu ekonomikoari aurre egiteko 300 euroko ekarpena egiteari buruzko puntua kentzea eskatu du. Adierazi du eskaera horrekin Nafarroa Bai-Irurtzun Bai udaltaldeak aurreko batzuetan jarraitutako irizpideari eutsi nahi diola; hau da, ekarpenik ez egitea herriko biztanleak barne hartzen ez dituen aferetarako.

Murugarren jaunak dio kaltetuei aparteko gastua sortzen diela epaiketak, eta horrexegatik eskatu dutela diru-ekarpen hori. Hala ere, puntua kentzea onartu du, eta halaxe egin da bozkatu aitzin.

ERREGISTRO ZIBILAK EUSKARAREN ARLOAN INFORMATIZATZEKO PROZESUAREN INGURUAN EGINDAKO ESKAERARA ATXIKITZEARI BURUZKO MOZIOA

Aurreko puntuetan bezala, Iriarte jaunak mozio hau sartu izana justifikatu du, oraingoan ere, Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2008ko ekainaren 2an egindako bilkuran aztertu zuelako.

Mozioaren premiazkotasuna bozkatuta onartu egin da Iriarte, Goicoechea, Recalde, Viñas eta Murugarren jaunen, eta Zabalo, Ongay eta Arruabarrena andreen aldeko botoarekin. De la Calle jaunak abstentziora jo du.

Jarraian, Behatokiak landutako testua euskaraz eta espainolez irakurrita, aho batez onartu da Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari eta Nafarroako Euskararen Institutuari igorriko zaion eskaerarekin bat egitea. Idazkiak honako eskaerak jasotzen ditu:

- 1.- Erregistro zibil delegatuetako langileak prestatuak izan daitezela, informatika-aplikazio berriaren euskarazko bertsioarekin lan egin dezaten.
- 2.- Erregistroen informatizazioa abian paratzen den unetik beretik, Irurtzongo Udalak aplikazio horren euskarazko bertsioa izatea bermatzea.

BATZORDEEN INFORMAZIOA

Ez dago.

GALDE-ESKEAK

Murugarren jaunak Itxesia igerilekuetan izandako kalteei buruz galdetu du. Bere garaian, herriko gazteak izan zirela aipatu zen, baina geroztik ez da berririk eman.

Iriarte jaunak esan du kalteak eragin zituztenetako batzuekin bilera egin zutela, eta hauek jarrera zintzoa erakutsi, eta berriro halakorik ez egiteko konpromisoa hartu zutela. Halaber, pertsona horiek herriarentzat lan egiteko prest azaldu ziren, egindako kalteen ordainetan. Lan horiek egiteko ordenantza bat lantzen ari direla adierazi du, eta berau onartuz

gero, pertsona horiek igerilekuetan bertan egin beharko lituzketela lan horiek. Bukatzeko esan du ez dela salaketarekin aurrera jarraitu zinez pentsatzen dutelako kalteak eragin dituztenek ez dutela berriro halakorik eginen.

Iriarte jaunak, bestalde, honako idazki hau irakurri du:

“Irurtzun Bai - Nafarroa Bai ETAk azkenaldi honetan egin dituen atentatuak salatzen ditu.

Maiatzaren 1ean, ETAk lehergailu bat zartarazi zuen Arrigorriagako (Bizkaia) Lan Ministerioko industria-pabiloi batean, eta kalte handiak eragin zituen. Halaber, beste bi lehergailu jarri zituen Donostian, Lan Segurtasunerako eta Osasunerako Euskal Institutuan; oraingo honetan kalte arinak eragin zituen.

Maiatzaren 12ko goizaldean, ETAk bi lehergailu zartarazi zituen Hernanin (Gipuzkoa), Amenabar eraikuntza-enpresaren bi hondeamakinatan.

Maiatzaren 14ko goizaldean, ETAk Legutioko polizia-etxeari egin zion eraso; ondorioz, Juan Manuel Piñuel Villalon hil egin zen, eta beste hainbat zauriak izan zituzten.

Ekainaren 1eko goizaldean, ETAk berriro ere Amenabar eraikuntza-enpresari eraso egin zion.

ETAren atentatuak direla-eta, Irurtzun Bai- Nafarroa Bai udal-taldeak honako hau adierazi nahi du:

- 1.- Legutioko atentatuan hil zen Juan Manuel Pinillaren familiei doluminak eta elkertasuna.
- 2.- Errefus politikorik eta gaitzespen etikorik irmoena indarkeriarekiko, egile materialak eta ustezko arrazoiak edozein direla ere.
- 3.- Edozein indarkeria-ekintza politiko errefusatu eta gaitzesten dugu, eta, aldi berean, oinarri demokratikoak eta pertsona guztien Giza Eskubideak defendatzen ditugu.
- 4.- Amenabar enpresaren aurkako atentatuak (nolanahi ere gaitzesten ditugun ekintzak) AHTren lanak egiteagatik direla frogatuz gero, gogor gaitzesten dugu erakunde armatuaren parte-hartze bortitza. Gure iritziz, AHTren lanen aurka gizarte-mugimenduek zilegi eta modu baketsuan aurka egiteko duten eskubidearen aurkako da.
- 5.- ETArri galdegitea behin betikoz eta alde bakarrez indarkeria utz dezan, eta ez dadila oztopo izan Euskal Herriak bide politikoak eta demokratikoak jorratuz aurrera egin dezan.”

Murugarren jaunak bere garaian hainbat afera lantzeko, besteak beste, azoka txikia eta hezkuntza, eratu ziren batzorde mistoez galdetu du. Esan

du ez dutela funtzionamendurik izan, eta, hala ere, gai horien inguruko jarduerak izan direla.

Iriarte jaunak esan du gai horien inguruan landutakoak beti zein bere batzordera eraman dela.

Azkenik, Murugarren jaunak galdetu du ea Udalak parte hartu ote duen Nafarroako Txirrindulari Itzulian herrian tarteko helmuga bat jartzen.

Iriarte jaunak esan du Udalak ez duela parte hartu; tarteko helmuga txirrindulari-probaren antolatzaileek paratu dute beren kabuz.

Aztergai gehiagorik ez dagoela, eta arratsaldeko zazpiak eta berrogeita bost minutu direnean, udalburuak bilkura amaitutzat jo du. Idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren Egiaztapena egiten dut.